

Izena:_____Data:_____

SALTOEN MUNDUKO ERREKOR BERRIA

Salto-saltoka 24 orduz

Horixe egin zuten Estatu Batuetako Michigan aldeko zortzi haurrek, munduko errekorra ezartzeko asmoz.

Haurrek ostiral goizean ekin dioten marka berri ezartzeari, Detroit hiriko jolas parke batean. Binaka eta txandakatuz salto saltoka aritu ziren gaztelu puzgarri baten barruan.

Mason Brot izeneko 10 urteko mutikoak esan zuen :

- “Hasieran pentsatu nuen baino errazagoa izan da”

Munduko Guinness Errekorren liburuan sartuko dira 8 eta 11 urte bitarteko haur horiek. Oraintsu arte, saltoen munduko marka 19 ordu eta 24 minututan zegoen eta, agidanez, jolas parkean zeuden batean bururatu omen zitzaien haurrei marka hori haustea.



Haurrak pozik, errekorra ezartzeko ahaleginetan.

1. Nolako testua da irakurgai hau?

Ipuina.

Albiste.

Leienda.

Azalpen testua.


2. Non gertatu zen? _____

3. Zer da Munduko Guinness Errekorren liburua? _____

4. Idatzi E (egia) edo G (gezurra)

- Errekorra munduko salto handiena egitean zetzan. ____
- Haurrek egun oso bat eman zuten saltoka. _____
- Haur txikienak zortzi urte zituen eta nagusiena hamaika. _____
- Guztiak batera aritu ziren, atsedean hartu gabe. _____
- Lehengo saltoen errekorra ia 20 ordukoa zen. _____
- Telebista ikusten ari zirela bururatu zitzaaien errekor berria ezartzea. _____
- Munduko errekorrak liburu batean biltzen dira. _____

5. Hitz bakoitza kontrako esanahia duten hitzarekin (antonimoa) eta esanahi bera duten hitzarekin (sinonimoa) elkartu:



6. Hitz bakoitza dagokion irudiaren azpian idatzi:

ARGAZKILARIA KAZETARIA EGUNKARIA PRENTSA-SALTZAILEA